

# CORAZONISTAS

TIEMPO LIBRE



## 2020KO UDAKO PLANA

Apaltasuna gizakiak bere mugak eta ahuleziak ezagutzeko duen gaitasuna da, eta horiek onartuta, lanari ekitea besteenganako errespetoz, beti ere. Dohain honek, zuzentasunarekin batera, hau da, gure buruarekin eta besteekin zintzo jokatzeko ahalmena, alegia, konfiantza eta errespetua merezi duten pertsona bihurtzen gaitu. "Xumearen indarra" gure goiburua izan da kurtso honetan eta udako ekintzetan izaten jarraitzea nahi dugu.

Apala den pertsona xumea eta eskuzabala da, bere gaitasunaz eta ahuleziaz jabetu, eta gorputz eta arimaz aritzen dena besteekiko zerbitzuan. Apala den pertsonak ongi daki pribilegiatua dela jaso dituen gauza guztiengatik eta esker oneko agertzen da horrexegatik. Errespetuz jokatzeko du jaso dituen gauza eta inguruko gizaki guztiekin, denak berdinak eta duintasun berekoak direla jabetuta.

Uda honetarako proposatzen ditugun ekintzekin helburu berdina bilatzen dugu, gizaki bezala hazten jarraitzeko, zu zeu izaten ikasteko, dituzun baloreetan kontzientzia handiagoa hartzeko, lantzeko eta behar dutenen zerbitzura jartzeko.



Uda oso bat aurrean daukazu, deskantsatzeko, lagun eta familiarekin egoteko, disfrutatzeke eta esperientzia berriak bizitzeko eta gizaki bezala hazten jarraitzeko, seguru lagungarriak izango direla!

***OHARRA:*** jarraian probintzia mailan uda honetarako proposatzen diren ekintza guztien zerrenda agertzen da. Ekintzaren batean parte hartu nahi balin baduzu, bete ezazu dagokion galdetegia. Izen-emate epea bukatzen denean eta onartuen zerrenda sortutako momentuan, ekintza bakoitzeko arduraduna emandako emailean zuekin kontaktuan jarriko da ordainketa eta plazaren erreserba burutzeko.

## ALTSASUKO ESKOLEN ARTEKO KANPALDIA

HARTZAILEAK:	Lehen Hezkuntzako 5. Eta 6. mailak
TOKIA:	Altsasua (Nafarroa)
DATAK:	Uztailaren 15etik 27ra
PREZIOA	345€
HELBURUAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autonomian, erantzukizunean eta kooperazioan haztea: taldeko ekintzak, estrategien bilaketa, ibiltaritza...</li> <li>- Daukaguna aintzat hartzea, tokatzen den janariarekin etsitzea, kontsumo arduraduna...</li> <li>- Eskolan eta etxean jasotako baloreak gauzatzea, adiskide eta solidario izatea, besteez arduratzea, enpatia, elkarlana eta parte hartzea sustatzea...</li> </ul>
EKINTZAK:	Gymkanak, tailerrak, irteerak, gau ibilaldiak, talde dinamikak, naturan ekintzak...
ALTSASUKO KANPALDIRAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: <a href="#">HEMEN</a>	

## GARESEKO ESKOLEN ARTEKO KANPALDIA

HARTZAILEAK:	DBH 1. maila
TOKIA:	Puente la Reina - Gares (Nafarroa)
DATAK:	Uztailaren 15etik 27ra
PREZIOA	365€
HELBURUAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autonomian, erantzukizunean eta kooperazioan haztea: taldeko ekintzak, estrategien bilaketa, ibiltaritza...</li> <li>- Daukaguna aintzat hartzea, tokatzen den janariarekin etsitzea, kontsumo arduraduna...</li> <li>- Eskolan eta etxean jasotako baloreak gauzatzea, adiskide eta solidario izatea, besteez arduratzea, enpatia, elkarlana eta parte hartzea sustatzea...</li> </ul>
EKINTZAK:	Gymkanak, tailerrak, irteerak, gau ibilaldiak, talde dinamikak, naturan ekintzak...
GARES KANPALDIRAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: <a href="#">HEMEN</a>	

## ORDUÑAKO ESKOLEN ARTEKO KANPALDIA

HARTZAILEAK:	DBH 2. maila
TOKIA:	Orduña (Bizkaia)
DATAK:	Uztailaren 15etik 27ra
PREZIOA	365€
HELBURUAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autonomian, erantzukizunean eta kooperazioan haztea: taldeko ekintzak, estrategien bilaketa, ibiltaritza...</li> <li>- Daukaguna aintzat hartzea, tokatzen den janariarekin etsitzea, kontsumo arduraduna...</li> <li>- Eskolan eta etxean jasotako baloreak gauzatzea, adiskide eta solidario izatea, besteez arduratzea, enpatia, elkarlana eta parte hartzea sustatzea...</li> </ul>
EKINTZAK:	Gymkanak, tailerrak, irteerak, gau ibilaldiak, talde dinamikak, naturan ekintzak...
ORUÑAKO KANPALDIRAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: <a href="#">HEMEN</a>	

## SANTUTEGIEN IBILBIDEA

HARTZAILEAK:	DHB 3. eta 4. mailak
TOKIA:	Gasteiz - Araia - Arantzazu - Loiola - Zarautz
DATAK:	Uztailaren 4tik 12ra
PREZIOA	200€ + bidaiak
HELBURUAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldean bizitzea ingurune natural batean</li> <li>- Hobetzeko grina sustatzea</li> <li>- Austeritate bizipen bat izatea</li> <li>- Hausnarketa eta otoitz momentuak izatea, norbera bere buruarekin bat egitea</li> </ul>
EKINTZAK:	Ibilaldiak, kanpaldiak, gaubelak, mendia, hondartza surf eskola...
SANTUTEGIEN IBILBIDERAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: <a href="#">HEMEN</a>	

<b>SANTIAGO BIDEA</b>	
HARTZAILEAK:	Batxilergoko 1. maila
TOKIA:	Astorgatik (León) Santiago de Compostelaraino
DATAK:	Uztailaren 3tik 15era
PREZIOA	290€ + bidaiak
HELBURUAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erromes bihurtzea Santiago Bideko 11 etapa eginez</li> <li>- Bataz besteko 25 km egunero egitea (goizez 5-6 orduko ibilera)</li> <li>-Ditugun ondasun txikiak elkar banatzea: dirua, janaria, festa, atsedena...</li> <li>- Solidaritate, topaketa eta austeritate esperientzia</li> </ul>
SANTIAGOKO BIDERAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: <a href="#">HEMEN</a>	

bn

<b>FRONTERA SUR LAN EREMUA</b>	
HARTZAILEAK:	Batxilergoko 2. maila eta aisialdiko premonitoreak
TOKIA:	Ceuta
DATAK:	Uztailaren 5etik 18ra
PREZIOA	395€ + bidaiak
ZER NAHI DUZU ZUK BIZITZEA?	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat gazte bizi duten errealitate gogorarekin kontaktua izatea, zu zeu bezala, beraien bizitzarentzat etorkizun bat bilatzen dutenak.</li> <li>- Fedean sakontzeko, Jesusekin topo egiteko aukera izatea, baita bokazioaren inguruko hausnarketa egiteko aukera izatea.</li> <li>- Dena partekatzeko eta egun batzuk senidetasunean bizitzeko aukera izatea.</li> </ul>
EKINTZAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioaren eta kontzientzia kritikoaren inguruko formakuntza</li> <li>- Harrera etxea bateko pertsonekin elkarbizitza</li> <li>- Ama etorkinen umeekin aisialdia</li> <li>- Harrera etxeko gurasorik gabeko gazte etorkinekin aisialdia</li> <li>- Gaztelera, informatika eta beste gaietan irakaskuntza</li> <li>- Tailer interesgarrien antolakuntza pertsona talde hauentzat</li> </ul>
FRONTERA SUR LAN EREMURAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: <a href="#">HEMEN</a>	